



ZUBIZARRETA

C/ Gran Vía 42, Ppal. Dcha.
48011 BILBAO-BILBO
Tfno. 94 4232927
zubibil@grupozubizarreta.com

C/ Prim 28, entresuelo Izda.
20006 DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN
Tfno. 943 420 577
zubidon@grupozubizarreta.com

C/ Vicente Goikoetxea 6, 5º Dcha.
01008 VITORIA-GASTEIZ
Tfno. 945 271374
zubigas@grupozubizarreta.com

**ZUIAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ZUIA**

**Emakumeen eta gizonen aukera berdintasunari buruzko
Diagnostikoa**

Diagnóstico
de igualdad de oportunidades de mujeres y hombres

Abenduak – Diciembre 2014



Aurkibidea

Diagnostikoa

1.- Sarrera	2
2.- Metodologia	3
3.- Biztanleria	6
4.- Arloen azterketa	10
4.1.- Neurri orokorrak (Gobernantza, Parte hartzea, Komunikazioa eta Irudia)	10
4.2.- Kultura, Euskara, Kirola eta Gazteria	16
4.3.- Hezkuntza	21
4.4.- Enplegua	23
4.5.- Gizarte Zerbitzuak, gizarteratzea eta osasuna	29
4.6.- Hirigintza, Garraioa eta Ingurumena	33
5.- Indarguneak eta hobetzeko arloak	36
6.- Berdintasun Planerako ildo estrategikoak	46

ERASKINAK

- Zuiako Udalaren Organigrama
- Elkarteen zerrenda

Índice

Diagnóstico

1.- Introducción	2
2.- Metodología	3
3.- Población	6
4.- Análisis de Áreas	10
4.1.- Medidas generales (Gobernanza, participación, comunicación e imagen)	10
4.2.- Cultura, Euskara, Deporte y Juventud	16
4.3.- Educación	21
4.4.- Empleo	23
4.5.- Servicios sociales, inclusión social y salud	29
4.6.- Urbanismo, transporte y medio ambiente	33
5.- Fortalezas y áreas de mejora	36
6.- Líneas estratégicas para el Plan de Igualdad	47

ANEXOS

- Organigrama del Ayuntamiento de Zuia
- Listado de Asociaciones





ZUBIZARRETA

**Emakumeen eta gizonen aukera
berdintasunari buruzko
Diagnostikoa**

*Diagnóstico de
igualdad de oportunidades
de mujeres y hombres*





1.- Sarrera

Txosten honen helburua da Zuia udalerrian Emakumeen eta gizonen aukera berdintasunari buruz egindako Diagnostikoa eta horretan ondorioztatutako indarguneen eta hobekuntza arloen zerrenda aurkeztea, ondoren Udal Ekintza Plana diseinatzeko oinarria izan dadin.

Zuia Udala gaur egun berdintasunari lotutako hainbat ekintza puntual egiten ari da: Martxoaren 8an bandoa argitaratzea, udaletxea puntu lila jartzea..., aitzitik, ez dauka bere jarduera eremuetan modu egituratuan integratutako berdintasun politikarik.

Horregatik hain zuzen, Berdintasunari buruzko Diagnostikoa eta Udal Plana egitea erabaki da, modu koordinatuan eta zeharrekoan udalerrian berdintasuna bultzatzeko eta genero indarkeria errotik desagerrarazteko.

Erabaki honen oinarrian dago gaur egun udalerrian ez dagoela Berdintasunaren inguruko Diagnostikorik eta Planik eta 21 Udal Agenda egin dela (2010), eta pentsatu da hau une egokia izan daitekeela aurrera egiten jarraitzeko, sinergiak aprobetxatzeko eta udal politiketan generoarean ikuspegia zeharrean sartzeko.

Proiektu hau genero ikuspegiari dagokionez Udalaren beraren gaur egungo egoera eta udalerraren egoera soziala azaltzeko Diagnostiko bat eginez hasi da, I. Berdintasun Plana lantzeko oinarri izango dena, eta berdintasunaren inguruko udal politikak garatzea ahalbidetuko duena.

1.- Introducción

El objetivo de este informe consiste en presentar el Diagnóstico de igualdad de oportunidades de mujeres y hombres realizado en el municipio de Zuia y una relación de las fortalezas y áreas de mejora obtenidas del mismo, que sirvan de base para el diseño posterior del Plan de Acción Local.

El Ayuntamiento de Zuia realiza en la actualidad algunas acciones puntuales relacionadas con igualdad: publicación de un bando el 8 de marzo, colocar el punto lila en el Ayuntamiento,...sin embargo carece de una política de igualdad integrada en sus diferentes ámbitos de actuación de manera estructurada.

Es por ello que se ha tomado la decisión de realizar un Diagnóstico y un Plan Local de Igualdad con el objetivo de trabajar de manera coordinada y transversal para impulsar la igualdad y erradicar la violencia de género del municipio.

Esta decisión deriva de la inexistencia a día de hoy de un Diagnóstico y un Plan de Igualdad en el municipio y de la reciente realización de la Agenda Local 21 (2010), ya que se considera que este puede ser un buen momento para continuar avanzando, aprovechar sinergias, e incorporar el enfoque de género de manera transversal en las distintas políticas municipales.

Este proyecto se ha iniciado realizando un Diagnóstico que presente la situación actual del propio Ayuntamiento y la situación social del municipio en relación al enfoque de género, como punto de partida que sirva de base para elaborar el I Plan de Igualdad y permita desarrollar las políticas municipales de igualdad.

2.- Metodologia

Diagnostikoa egiteko planteatu den metodologiak izaera parte hartzailea izan du, Udala osatzen duten pertsona guztiei prozesua ezagutaraziz, eta haien inplikazioa bilatuz eta parte hartzea bilatuz.

Elkarteen sareak parte hartzea ere erraztu da, galdetegien bitartez eta hiru elkarteri elkarrizketak eginez.

Halaber, Emakundek argitaratutako “Tokiko berdintasun planak diseinatzeko, kudeatzeko eta balioesteko gida” izenekoan markatutako jarraibideak jarraitu dira.

Informazio bi alderditatik jaso da:

- Udalaren gaur egungo egoera berdintasunari dagokionez eta bere jardura politiketan genero ikuspegia zeharrean sartzea.
- Arlo sozialeko datuak.

Diagnostikoa egiteko etapak hauek izan dira:

- 1^a.- Udalerriari buruzko hainbat datu kuantitatibo jasotzea eta aztertzea, sexuen arabera bereizita, eta dokumentazioa aztertzea.

Atal honetan, zenbait kasutan, arazoak izan dira Zuiako udalerrian sexuen arabera datu zehatz eguneratuak eta xehatuak lortzeko.

Datuak batez ere honako iturri hauetatik lortu dira:

- Zuiako Udalak emandako datuak.
- Tokiko Agenda 21.
- Eustat.
- Lanbide

Halaber, diagnostiko lantzeko hainbat iturri dokumental kontsultatu dira, bai barrukoak bai kanpokoak.

2.- Metodología

La metodología planteada para llevar a cabo el diagnóstico ha sido de carácter participativo, dando a conocer el proceso a todas las personas que forman parte del Ayuntamiento, buscando su implicación y participación en el mismo.

También se ha facilitado la participación del tejido asociativo a través de cuestionarios, y entrevistas con tres asociaciones.

Asimismo, se han seguido las orientaciones marcadas por la “Guía para el diseño, gestión y evaluación de planes locales para la igualdad” publicada por Emakunde.

La información se ha recogido desde una doble vertiente:

- Situación actual del Ayuntamiento en relación a la igualdad y la inclusión de forma transversal del enfoque de género en sus diferentes políticas de actuación.
- Datos del ámbito social.

Las etapas para realizar el diagnóstico han sido las siguientes:

- 1^a.- Recogida y análisis de diversos datos cuantitativos sobre el municipio diferenciados por sexos y análisis de documentación.

En este apartado, en algunos casos se han producido dificultades para obtener datos concretos actualizados y desagregados por sexos sobre el municipio de Zuia.

Los datos se han obtenido principalmente de las siguientes fuentes:

- Datos aportados por el Ayuntamiento de Zuia.
- Agenda Local 21.
- Eustat.
- Lanbide.

Asimismo, se han consultado diversas fuentes documentales para la elaboración del diagnóstico, tanto internas como externas.

2^a.- Informazio kualitatiboa jasotzea eta aztertzea, Udaleko langile teknikoei eta politikariei zein hainbat elkarteri egindako galdetegiaren eta elkarrizketen bitartez.

Guztira 29 galdetegi banatu zaizkie Udaleko pertsoneri (Udaletxeko eta Koadrilako langile teknikoak eta alderdi politikoa), eta erantzunen portzentajea %52 izan da (7 emakumezko eta 8 gizonezko).

2^a.- Recogida y análisis de información cualitativa mediante cuestionarios y entrevistas a personal técnico y político del Ayuntamiento así como a diversas Asociaciones.

Se han distribuido un total de 29 cuestionarios a personas del Ayuntamiento (personal técnico de Ayuntamiento y Cuadrilla y parte política), con un porcentaje de respuesta del 52% (7 mujeres y 8 hombres).

Sexua / Sexo	Guztira / Total
Emakumea / Mujer	7
Gizona / Hombre	8
Adina / Edad	
30 urte edo gutxiago / Menor o igual de 30 años	1
31-45 urte artean / Entre 31 y 45 años	9
46 urte baino gehiago / Más de 46 años	5
Famili erantzukizunak / Responsabilidades familiares	
Adingabeak bere kargu / Menores a su cargo	11
Mendeko pertsona helduak / Personas adultas dependientes	2
Inor ez bere kargu / Nadie a su cargo	2

Elkarteei dagokienez, 16 galdetegi banatu dira, eta erantzunen portzentajea %56 izan da. Datu pertsonalak ez dira kasu guztietan bete, eta jaso direnak aurkezten dira hemen:

En el caso de las Asociaciones se han distribuido 16 cuestionarios, con un porcentaje de respuesta del 56%. Los datos personales no se han cumplimentado en todos los casos, se presentan los que se han recogido:

Sexua / Sexo	Guztira / Total
Emakumea / Mujer	3
Gizona / Hombre	4
Adina / Edad	
40-60 urte / 40-60 años	3
60 urte baino gehiago / Más de 60 años	3
Famili erantzukizunak / Responsabilidades familiares	
Adingabeak bere kargu / Menores a su cargo	4
Mendeko pertsona helduak / Personas adultas dependientes	---
Inor ez bere kargu / Nadie a su cargo	2

Azkenik, elkarrizketak egin dira 23 pertsonarekin:

- Arloetako arduradun politikoak: 4 elkarrizketa.
- Udaletxeko langile teknikoak (Koadrilaren eta Foru Aldundiaren mendeko langileak barne): 11 elkarrizketa.
- Emakume Taldea, Guraso Elkartek eta GOBA Elkartea: 3 elkarrizketa.

Elkarrizketa gehienak banaka egin dira, lau taldean egin dira, eta gehienak presentzialak izan dira, eta bitan telefono bidezkoak.

Horietan lortutako informazioa txostenean zehar jasotzen da, dagokien ataletan.

Por último, se han realizado entrevistas con 23 personas:

- Responsables a nivel político de las distintas áreas: 4 entrevistas.
- Personal técnico del Ayuntamiento (incluyendo personal dependiente de la Cuadrilla y de Diputación): 11 entrevistas.
- Representantes de Emakume Taldea, las AMPAS y la Asociación GOBA: 3 entrevistas.

La mayoría de estas entrevistas han sido individuales, cuatro grupales y se han realizado de manera presencial en su mayoría y telefónica en dos ocasiones.

La información obtenida en las mismas se recoge a lo largo del informe en los apartados correspondientes.



3.- Biztanleria

Atal hau lantzeko Tokiko Agenda 21ean eskuragarri dagoen informazioa hartu da Udalak emanda, eta azken datu erabilgarriak ere lortu dira, horien gainean lan egin ahal izateko.

Zuiaiko biztanleriaren dentsitatea 19,42 biztanle/km² da (Eustat, 2008), goranzko joera nabarmena du, oraindik ere bai Arabako dentsitateak (104,69 biztanle/km²) bai EAEkoak (304,31 biztanle/km²) baino txikiagoa bada ere, eta are Eskualdeko biztanleri dentsitatea baino txikiagoa (20,30 biztanle/km²).

Zuia izan da, historikoki, Koadrilari izena eman dion udalerria, eta ondorioz, Murgia, bere hiriburua, entitate horren buru administratiboa da era berean. 123 km²-rekin, Koadrilako herririk handiena da, eta Koadrilako populazioaren %25 baino gehiago du, hau da, pisurik handiena duen udalerria da biztanleriari dagokionez.

2001az geroztik, herriko biztanleria progresiboki handituz joan da, eta gizonen eta emakumeen arteko diferentzia %2 eta %4 artean mantendu da.


3.- Población

Para elaborar este apartado se ha tomado la información disponible en la Agenda Local 21, facilitada por el Ayuntamiento como los últimos datos disponibles sobre los que trabajar.

La densidad poblacional de Zuia es de 19,42 hab./km² (Eustat, 2008), tiene una clara tendencia alcista, aunque sigue siendo mucho menor que las densidades tanto de Álava (104,69 hab./km²) como de la CAPV (304,31 hab./km²), e incluso algo menor que la densidad poblacional de la Comarca (20,30 hab./km²).

Zuia es el municipio que, históricamente, ha dado nombre a la Cuadrilla y, en consecuencia, Murgia, su capital, también ejerce de cabeza administrativa de esta entidad. Con 123 Km² es el municipio más grande de la Cuadrilla, y representa más del 25% de la población de la Cuadrilla, por lo que es el municipio con mayor peso poblacional.

Desde 2001 la población del municipio se ha incrementado progresivamente, manteniendo una diferencia entre hombres y mujeres entre el 2 y 4%:




Iturria - Fuente: Eustat

Biztanleriaren %50 Murgian kontzentratzen da, eta bertan gertatu da azken hamarkadan udalerrriaren hazkunde demografiko nagusia. 2010ean 2.408 biztanle zeuden, honela banatuta:

El 50% de la población se concentra en Murgia, donde se ha dado el principal crecimiento demográfico del municipio en la última década. En 2010 hay 2.408 habitantes que se reparten de la siguiente manera:

	Gizonak Hombres	Emakumeak Mujeres	Guztira Total
Altube	19	10	29
Ametzaga	130	138	268
Aperregi	20	21	41
Ziorraga	8	6	14
Domaikia	37	24	61
Guillerna/Gilierna	26	27	53
Jugo	24	18	42
Lukiano	31	24	55
Markina	32	32	64
Murgia	613	581	1194
Sarría	152	131	283
Bitoriano	134	135	269
Zárate	20	15	35
Guztira / Total	1.246	1.162	2.408


Iturria - Fuente: Tokiko agenda 21 - Agenda Local 21



Udalak emanda gaur egun erabilgarri ditugun azken datuen arabera, biztanleriaren %48 emakumezkoak dira, eta %52 gizonetzkoak. Biztanleriaren zatirik handienak (%79) 60 urte baino gutxiago du. Grafikoari erreparatuta, udalerrri gazte samarra dela ikusi dezakegu.

Según los últimos datos disponibles a fecha de hoy facilitados por el Ayuntamiento, el 48% de la población son mujeres y el 52% hombres. La mayoría de la población (79%) tiene una edad inferior a los 60 años. Observando el gráfico podemos ver que se trata de un municipio relativamente joven:

2014 Zuiako Biztanleriaren piramidea - Pirámide Población Zuia



Adina Edad	Gizonak Hombres	Emakumeak Mujeres	Guztira Total	% Gizonak Hombres	% Emakumeak Mujeres	% Biztanle Guztira gainean sobre Población Total
0-9	136	112	248	54,84%	45,16%	10,21%
10-19	163	156	319	51,10%	48,90%	13,13%
20-29	94	93	187	50,27%	49,73%	7,70%
30-39	120	121	241	49,79%	50,21%	9,92%
40-49	233	238	471	49,47%	50,53%	19,39%
50-59	256	191	447	57,27%	42,73%	18,40%
60-69	136	106	242	56,20%	43,80%	9,96%
70-79	71	71	142	50,00%	50,00%	5,85%
80-89	42	66	108	38,89%	61,11%	4,45%
90-99	9	15	24	37,50%	62,50%	0,99%
Guztira / Total	1.260	1.169	2.429			100%

Iturria - Fuente: Udala - Ayuntamiento



Pertsona gehienak 40tik 59ra urte arteko tartean kokatzen dira. Halaber, haurren tartea, 0-9 urte, 60-69 tartearen ia berdina da. Oro har, adin tarte guztietan presentzia maskulino handiagoa ikusten da, 40-49 tartean izan ezik eta 80 urtetik aurrera izan ezik.

Azkenik, adierazi behar da biztanleriaren %48 30-59 urteko tartean kokatzen dela, hau da, senideak zaintzeko adinean, ea alderdi hori kontuan hartu beharrekoa da koerantzukizun eta kontziliazio neurriak sustatzeko orduan.

Biztanle atzerritarren artean %49 gizonezkoak dira eta %51 emakumezkoak, eta guztira biztanleriaren %5 egiten dute.

Ez dugu eskuratu etxeen osaerari buruzko datu eguneraturik.

La mayoría de las personas se sitúa en la franja de edad entre los 40 y los 59 años. La franja de edad infantil, de 0 – 9 años, es casi igual a la de 60 – 69. Se observa en general mayor presencia masculina en todos los tramos de edad a excepción del tramo de 40 – 49 y a partir de los 80 años.

Por último, señalar que un 48% de la población se sitúa entre los 30 y los 59 años, esto es, en edad de cuidado familiar, aspecto a tener en cuenta a la hora de fomentar medidas de corresponsabilidad y conciliación.

La población extranjera se compone de un 49% de hombres y un 51% de mujeres, suponiendo un 5% de la población.

No se dispone de datos actualizados sobre la composición de los hogares.



4.- Arloen azterketa

4.1.- Neurri orokorrak (Gobernantza, Parte hartzea, Komunikazioa eta Irudia)

Gobernantza

Udalbatzako ordezkariak politikoan %27 emakumezkoak dira eta %73 gizonezkoak.

Udaletxeko langileei dagokienez, berriz, emakumeen eta gizonen presentzia %50ean banatuta dago, mantentze lanak, obrak eta jakinarazpenak gizonezkoek bakarrik egiten badituzte ere, zeregin administratiboetan emakumeak nagusitzen direlarik.

Koadrilako eta Foru Aldundiko langileetatik, berriz, %43 emakumezkoak dira eta %57 gizonezkoak.

Udaletxean gaur egun berdintasunaren inguruan dagoen egoerari buruzko informazioa jasotzeko, bai barruan bai interbentzio arlo desberdinetan, galdetegiak egin zaizkie langile tekniko eta politikari guztiei, baita Udalerriko hainbat elkarteri ere, eta elkarrizketak egin zaizkie langile tekniko guztiei, politikarien lagin bati (udal politiken hedapenaz arduratzen direnei) eta Emakume Taldea eta Goba elkarteei eta Ikastetxeko eta Institutuko Guraso Elkarteei.

Langile teknikoen (Udala, Koadrila eta Foru Aldundia) eta alderdi politikoen artean 28 galdetegi banatu dira, eta %54k erantzun dute (7 emakumezko eta 8 gizonezko).

Koadrilaren eta Foru Aldundiaren mendeko langile teknikoetatik %100ek erantzun dute, Udaleko langileetatik %40k eta alde politikotik %27k.

Erantzun duten pertsona guztiek hiru urte baino gehiagoko antzintasuna dute. Pertsona horietatik, 5 emakume eta 6 gizon adingabeak dituzte beren kargu, eta gizon batek eta emakume batek mendetasuna duen pertsona bat dute beren kargu.

4.- Análisis de las distintas Áreas

4.1.- Medidas Generales (Gobernanza, Participación, Comunicación e Imagen)

Gobernanza

La Corporación Política cuenta con una representación de mujeres del 27% y un 73% de hombres.

En cuanto al personal del Ayuntamiento, la presencia de mujeres y hombres está repartida al 50%, aunque las tareas de mantenimiento, obras y notificaciones las realizan exclusivamente hombres y en las tareas administrativas predominan las mujeres.

El personal de la Cuadrilla y Diputación está formado por un 43% de mujeres y un 57% de hombres.

Para recoger información de la situación actual en materia de igualdad en el Ayuntamiento, tanto a nivel interno como en las diferentes áreas de intervención, se han realizado cuestionarios a la totalidad del personal técnico y político y a distintas Asociaciones del municipio, así como entrevistas a la totalidad del personal técnico, a una muestra del personal político (responsables del despliegue de las diferentes políticas municipales), y a las Asociaciones Emakume Taldea, Goba y las AMPAS del Colegio y el Instituto.

Entre el personal técnico (Ayuntamiento, Cuadrilla y Diputación) y parte política se han distribuido 28 cuestionarios, obteniéndose un 54% de respuestas (7 mujeres y 8 hombres).

Ha contestado el 100% del personal técnico dependiente de la Cuadrilla y Diputación, el 40% del personal del Ayuntamiento y el 27% de la parte política.

Todas las personas que han contestado cuentan con más de tres años de antigüedad. De estas personas, 5 mujeres y 6 hombres tienen menores a su cargo, y un hombre y una mujer tienen una persona dependiente a su cargo.

Galdetegiko erantzunetatik honako ondorio hauek atera ditzakegu:

- Oro har, hautematen da Zuiako Udaletxean aukera berdinak daudela eta berdin baloratzen dela emakumeen eta gizonen lana.
- Pertsona gehienak ados badaude ere gizona edo emakumea izateak ez duela prestakuntza lortzeko eraginik esaterakoan, bi pertsonak erabateko desadostasuna adierazi dute baieztapen horrekin (gizon bat eta emakume bat).
- Emakumeen %71k eta gizonen %88k ez dute inolako prestakuntzarik jaso berdintasunari dagokionez.
 - Emakumeen %67k eta gizonen %50ek badakite zer den udal mailako Berdintasun Plan bat, eta bi kasuetan %80k baino gehiagok beharrezkotzat jotzen dute.
 - Emakumezkoen %50ek eta gizonezkoen %57k diote parte hartzen duten programetan generoaren perspektiba ez dela kontuan hartzen.
 - Emakumeen %80k adierazi dute beraiek lanean erabiltzen dituzten datuak sexuen arabera xehatuta daudela (baten batek denak ez direla horrela ñabarmendu badu ere). Gizonen artean, berriz, portzentajea %33ra jaisten da, eta batek jarri du ez dakiela eta erantzun zuri bat ere badago.
 - Emakumeen %83k diote (erantzun zuri batekin) azken urteetan berdintasunari buruz egindako ekintza zehatzen bat ezagutzen duela, eta gizonen artean %88k erantzun dute ez dutela ezagutzen.
 - Emakumeen %75en iritziz (bi erantzun zuri), Udalean diseinatzen diren programetan Zuiako emakumeen eta gizonen premia desberdinak hartzen dira kontuan, eta berdin gertatzen da gizonen %40ren iritziz, batek ez dakiela eta beste bik zuri erantzun duten arren.

De las respuestas al cuestionario podemos extraer las siguientes conclusiones:

- Es general se percibe que en el Ayuntamiento de Zuia existen las mismas oportunidades y se valora de la misma manera el trabajo de mujeres y hombres.
- Aunque la mayoría de las personas se muestra de acuerdo con que el hecho de ser hombre o mujer no influye a la hora de acceder a formación, hay dos personas (1 hombre y 1 mujer) que se muestran en total desacuerdo con esta afirmación.
- El 71% de las mujeres y el 88% de los hombres no han recibido ningún tipo de formación en igualdad.
 - Un 67% de las mujeres y un 50% de los hombres saben lo que es un Plan de Igualdad en el ámbito local, y más del 80% en ambos casos lo considera necesario.
 - El 50% de las mujeres y el 57% de los hombres afirman que no se tiene en cuenta la perspectiva de género en los programas en los que participa.
 - El 80% de las mujeres afirma que los datos con los que trabaja están desagregados por sexo (aunque hay quien matiza que no todos). En el caso de los hombres el porcentaje desciende al 33%, uno pone que no sabe y hay una respuesta en blanco.
 - Un 83% de las mujeres (con una respuesta en blanco) afirma conocer alguna actividad específica en igualdad realizada en los últimos años, frente a un 88% de los hombres que contesta que no.
 - Un 75% de las mujeres (con dos respuestas en blanco) opina que en los programas que se diseñan en el Ayuntamiento se tiene en cuenta las diferentes necesidades de las mujeres y hombres de Zuia, al igual que un 40% de los hombres, aunque alguno señala que no sabe y hay dos respuestas en blanco.



Galdera irekietan jasotako erantzunei dagokienez, azpimarratu behar da eremu horretan ezagutzen diren jarduerak direla koadrila mailan antolatutako Emakumeen Topaketak, bideo forumak, hitzaldiak, autodefentsarako ikastaro bat, emakumearen eguneko kanpainak eta mozioak edo testuak onartzea.

Udalaren mende diharduten langileen lan baldintzei dagokienez, barne mailako gidalerroa Udalhitz da. Ez dago lanpostuen baloraziorik; langileak hautatzeko orduan dagoeneko sortuta zeuden profiletan oinarritu dira, eta ordainsari mailak ezartzeko antzeko Udaletako mailak hartu dira erreferentziatzat.

Ordainsari mailak berrikustean (Eranskina), hautematen da bi kasutan produktibitateko osagarriak jasotzen direla, Udaletxean egindako ibilbidean oinarrituta, eta horien kategoriari dagozkionak baino goragoko eginkizunak betetzen ari direla pentsatuta. Ez da barne promoziorik egin.

Musika Eskolari dagokionez, hitzarmen desberdina ezartzen da, jarduerari berari dagokiona, eta esleitutako eskola orduen arabera ordaintzen da.

Udalhitzeko kategoria bera partekatzen duten postu batzuetan ere desberdintasunak hautematen dira, "Beste Osagarri batzuk" izeneko kontzeptuan jarrita.

Pertsona guztiei prestakuntza eskaintzen zaie, bakoitzaren lanpostuaren arabera, eta eskuarki IVAPetik datorrenari buruz informatzen dituzte. Udaletxetik ere prestakuntza berezia eskatu da, langileek proposatuta, baina ez diete erantzun.

Laneko arriskuen prebentzioak kanpoko prebentzio zerbitzua dauka, Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionalaren eta OSALANen gomendioak jasotzen dituena, generoaren arabera bereizketa egiten duten alderdiei dagokienez, esaterako, kargak manipulatzeari dagokionez. Arrisku psikosozialen azterketa bat egin da, baina ez dira iritsi ISTHAS metodoak onargarritzat jotzen duen laginaren portzentajera.

Langile bereziki sentiberak kontuan hartzen dira, horien artean egonik haurdun dauden emakumeak eta edoskitzaroan daudenak. Kasu horietan jarraitzeko baren protokolo bat dute, baina ez dago Udaletxearen berezkorik eta langileei jakinarazi zaienik. Ez dago

Sobre las respuestas recogidas en las preguntas abiertas, destacar que las actividades que se conocen en este ámbito son los Encuentros de la Mujer organizados a nivel de cuadrilla, video fórums, charlas, un curso de autodefensa, campaña del día de la mujer y aprobación de mociones o textos.

En relación a las condiciones de trabajo del personal que depende del Ayuntamiento, internamente se guían por el Udalhitz. No existe una valoración de puestos de trabajo, al seleccionar personal se han basado en perfiles ya creados y para establecer los niveles retributivos se han tomado como referencia niveles de Ayuntamientos similares.

Al revisar los niveles retributivos (Anexo) se observa que en dos casos se perciben complementos de productividad, asignados en base al recorrido en el Ayuntamiento y a la percepción de que están realizando funciones superiores a las correspondientes a su categoría. No se han realizado promociones internas.

En el caso de la Escuela de Música se aplica un convenio diferente, propio de la actividad, y se retribuye en función de las horas lectivas asignadas.

También se observan diferencias entre puestos que comparten la misma categoría de Udalhitz por unas cantidades asignadas bajo el nombre de "Otros Complementos".

Se ofrece formación a todo el mundo en función de su puesto de trabajo, normalmente se les informa de la que llega desde IVAP. También se ha solicitado desde el Ayuntamiento formación específica a propuesta de los operarios, pero no les han dado respuesta.

La prevención de riesgos laborales cuenta con un servicio de prevención ajeno, que contempla las recomendaciones del Instituto Nacional de Seguridad e Higiene en el Trabajo y de OSALAN en aquellos aspectos que hacen diferenciación en función del género, por ejemplo en el manejo de cargas. Se ha realizado un estudio de riesgos psicosociales, pero no han llegado al % de la muestra considerada aceptable por el método ISTHAS.

Se tiene en cuenta el personal especialmente sensible, en el cual se incluyen las mujeres embarazadas y en periodo de lactancia. Tienen un protocolo interno a seguir en estos casos pero no uno específico del Ayuntamiento del que hayan informado al personal. No

protokolorik sexu jazarpen eta sexu arrazoiengatik jazarpen kasuetarako.

Kontziliazio neurriei dagokienez, Udalhitzera jotzen dute horrelakorik behar izanez gero (famili kargak dituzten langileak daude), eta langileen adierazi duten iritzia da norbaitek behar badu eskatu egingo duela, ez dute horretarako eragozpenik ikusten, zerbitzu anitzeko langileen kasuan izan ezik, horiek arazoren bat ikusten baitute lanpostuaren ezaugarriengatik.

Ohiko arau gisa, Udaletxean ez da aparteko ordurik egiten.

Ez dago barne Eskulibururik hizkuntzan eta irudietan erabilera sexista ez egiteko, kasu guztietan datuak ez daude sexuen arabera bereizita eta, oro har, jendeak ez daki zer esan nahi duen generoaren perspektiba duen ikuspegi batek eta udal mailan Berdintasunerako Plan bat izateak.

Halaber, ez dago dokumenturik berdintasunez lan egiteko Udalaren konpromiso esplizitua adierazteko, eta lizitazioei dagokienez ez da ohiko praktika berdintasun gaiei buruzko klausulak sartzea (klausula sozialak sartzeko gaia eta hori nola egin begiratzen hasi dira), eta generoaren perspektiba ez da kontuan hartzen diru laguntzak emateko orduan eta ez dago aurrekontuetan integratuta.

Berdintasunaren inguruko egun jakin batzuetan ekintza puntualak egin izan dira, hala nola martxoaren 8ko bandoa, zine foruma, Udaletxean puntu lila jartzea... baina ez dira berdintasunaren inguruko politika antolatuta eta koordinatu baten parte.

Koadrila mailan urtero Emakumeen Topaketak egiten dira, eta parte hartze handia izan ohi da (ez dago inpaktu erregistrorik).

Parte hartzea

Zuian hainbat elkarte daude, horietatik bi soilik emakumeena: Emakume Taldea eta Basubitxi. Gainera, Landa Ingurunekeo Emakumeen Sarean parte hartzen da.

Zuiko elkarteetan bost emakumek betetzen dute ordezkaritza goreneko kargua (Emakume Taldea, Basubitxi, Caritas, Danzas Txikis, AMPA IHES).

se cuenta con protocolos de actuación en caso de acoso sexual y por razón de sexo.

En lo referente a medidas de conciliación se remiten a Udalhitz en el caso de necesitarlas (hay personal con cargas familiares), y la opinión manifestada por el personal es que si alguien las necesita las pedirá, no se perciben impedimentos para ello, salvo en el caso de los operarios de servicios múltiples, que perciben cierta dificultad por el puesto de trabajo.

Como norma habitual no se realizan horas extras en el Ayuntamiento.

No se dispone de un Manual interno para un uso no sexista del lenguaje y las imágenes, no se cuenta en todos los casos con datos desagregados por sexos y hay desconocimiento en general de lo que supone el enfoque con perspectiva de género y un Plan para la igualdad en el ámbito local.

Tampoco se cuenta con documentos que reflejen el compromiso explícito del Ayuntamiento de trabajar en igualdad, y en el ámbito de las licitaciones no es práctica habitual incluir cláusulas sobre temas de igualdad (se está empezando a mirar el tema de las cláusulas sociales y la manera de incluirlas) y no se tiene en cuenta la perspectiva de género para la concesión de subvenciones ni está integrada en los presupuestos.

En fechas señaladas en materia de igualdad se han realizado actividades puntuales, como un bando el 8 de marzo, un cine fórum, poner el punto lila en el Ayuntamiento,...pero no forman parte de una política estructurada y coordinada en materia de igualdad.

A nivel de Cuadrilla se realizan anualmente los Encuentros de la Mujer, que cuentan con una amplia participación (no hay registros de impacto).

Participación

Zuia cuenta con diversas Asociaciones, dos de ellas exclusivamente de mujeres: Emakume Taldea y Basubitxi. Además se participa en la Red de Mujeres del Mundo Rural.

En las Asociaciones de Zuia hay cinco mujeres que ocupan el cargo de máxima representación (Emakume Taldea, Basubitxi, Cáritas, Danzas Txikis, AMPA IHES).



*Elkarteen artean banatutako 16 galdetegi*ei dagokienez, honako alderdi hauek nabarmendu daitezke:

- Galdetegiaren %56ri erantzun zaie.
- Erantzun duten bederatzi pertsonetatik batek baino ez du berdintasunari buruzko prestakuntzarik jaso.
- Gehienek ez dakite tokiko Berdintasun Plan bat zer den, baina erdiek baino gehiagok beharrezkoa dela uste dute.
- Elkarte gehienetan ez daude datu sexuen araberako datu xehaturik, hiru pertsonak baino ez dute uste antolatzen dituzten jardueretan generoaren ikuspegia kontuan hartzen dela, eta bik baino ez dute ezagutzen Elkartek azken urteetan berdintasunari lotutako ekintza zehatzen bat antolatu duela. Gehienek uste dute antolatzen diren jardueretan emakumeen eta gizonen behar desberdinak kontuan hartzen direla.
- Azkenik, hiru pertsonak uste dute Udalean emakumeen behar bereziak kontuan hartzen direla.

Egindako elkarrizketetatik jasotzen denez, jende guztiak elkar ezagutzen duen herria izanik, Udalaren eta elkartearen arteko harremanak modu pertsonalean kudeatzen dira.

Emakume Taldea elkartek emakumeei zuzendutako tailerrak antolatzen ditu: pintura, zeramika, ehungintza eta eskulanak, eta 87 parte hartzaile aritu dira. Berdintasunari eta hazkunde pertsonalari buruzko hitzaldiak ere antolatzen dituzte, eta Elkarteko emakume talde batek parte hartzen du.

Elkarrizketan adierazi denez, une honetan planteatzen ari dira elkarteari ikuspegi berria ematea beharrezkoa litzatekeen, antolatzen dituzten jardueretan gizonen ere parte hartzea sustatzeko. Uste dute ideia ona litzatekeela tailer irekiak egitea, eta beharbada koerantzukizun gaiak lantzea.

GOBA Elkartek, berriz, batez ere gazteei zuzendutako jarduerak egiten dituela adierazi du, eta horien bitartez berdintasunaren inguruko gaietan sentibilizatu nahi duela.

Respecto a los 16 *cuestionarios repartidos entre las Asociaciones*, pueden destacarse los siguientes aspectos:

- Se ha contestado un 56% de los cuestionarios.
- De las nueve personas que han respondido, sólo una ha recibido formación en igualdad.
- La mayoría no sabe lo que es un Plan de Igualdad en el ámbito local, aunque algo más de la mitad lo considera necesario.
- En la mayoría de las Asociaciones no cuentan con datos desagregados en función de sexo, sólo tres personas consideran que se tiene en cuenta la perspectiva de género en las actividades que organizan y sólo dos conocen alguna actividad específica organizada desde la Asociación en los últimos años relacionada con la igualdad. La mayoría opina que en las actividades organizadas se tienen en cuenta las diferentes necesidades de mujeres y hombres.
- Por último, tres personas creen que desde el Ayuntamiento se tienen en cuenta necesidades específicas de las mujeres.

De las entrevistas realizadas se recoge que, al ser un pueblo donde todo el mundo se conoce, las relaciones del Ayuntamiento con las asociaciones se gestionan de manera personal.

La Asociación Emakume Taldea organiza talleres dirigidos a mujeres de pintura, cerámica, textil y manualidades, que han tenido 87 participantes. También organizan charlas de igualdad y de crecimiento personal en las que participa un grupo de mujeres de la Asociación.

En la entrevista se comenta que en este momento se están planteando si sería necesario darle un nuevo enfoque a la asociación para fomentar la participación de los hombres en las actividades que realizan. Se piensa que podría ser una buena idea hacer talleres abiertos, quizás trabajar temas de corresponsabilidad.

La Asociación GOBA, por su parte, manifiesta realizar diversas actividades dirigidas sobre todo a la juventud, con las que se pretende sensibilizar en temas de igualdad.

Azkenik, nabarmendu daiteke Zuian 11 Administrazio Batzar daudela, honela osatuta:

Por último, cabe destacar que en Zuia hay 11 Juntas Administrativas con la siguiente composición:

Batzarra Junta	Emakumeak Mujeres	Gizonak Hombres
AMETZAGA DE ZUIA	1	2
APERREGI	1	2
BITORIANO	0	3
DOMAIKIA	0	3
GUILLERNA	0	3
JUGO	1	2
LUKIANO	0	3
MARKINA	0	3
MURGIA	2	5
SARRIA	0	3
ZARATE	2	1

Iturria Fuente: Zuiako udala - Ayuntamiento de Zuia

Datu horiek adierazten dute erabaki organoetan emakumeen parte hartzea %19koa dela.

Estos datos suponen un 19% de participación de las mujeres en estos órganos de decisión.

Administrazio Batzarrak ez dira Udalaren eskumena, baina gomendioak egin diezazkieke, eta Batzarrek horiek kontuan hartu edo ez.

Las Juntas Administrativas no son competencia del Ayuntamiento, puede hacerles recomendaciones que pueden atender o no.

Komunikazioa eta Irudia

Comunicación e Imagen

Zuiako Udala hainbat bide erabiliz komunikatzen da herritarrekin:

El Ayuntamiento de Zuia se comunica con la ciudadanía a través de distintos canales:

- Zubia aldizkaria, doan banatzen dena.
- Koadrilaren aldizkaria.
- Bere webgunea: www.zuia.com.
- Herritarren postontzia webgunean.
- Argiak.

- Revista Zubia, que se reparte gratuitamente.
- Revista de la Cuadrilla.
- Su página web: www.zuia.com.
- Buzón del ciudadano en su página web.
- Luminoso.

Zuiako Udalean aztertu diren komunikazioko materialak hauek izan dira:

Los materiales de comunicación analizados en el Ayuntamiento de Zuia han sido:

- Barne zirkularrak.
- Txartelak.
- Webgunea.
- Zubia aldizkaria (2014ko ekaina).

- Circulares internas.
- Carteles.
- Página web.
- Revista Zubia (junio 2014).



Material horiek aztertu eta gero, eta elkarrizketetan lortutako informazioarekin osatuta, honako ondorio nagusi hauek atera daitezke:

- Ez dago jarraibiderik ezarrita hizkuntza ez sexista erabiltzeko, ezta Eskulibururik ere, langile guztien esku.
- Txartel batzuetan ikusten da hizkuntza ez sexista erabili dela eta beste batzuetan ez, eta erabiltzen diren irudietan ez dira eredu ez sexistak jarraitzen.
- Zubia aldizkaria hizkuntza ez sexista erabiltzen dela hautematen da (salbuespenen batekin), eta berdin gertatzen da irudiekin.
- Webgunean kasuren batean maskulinoa generiko modua erabiltzen da.

4.2.- Kultura, Euskara, Kirola eta Gazteria

Tokiko Agenda 21ean bi eraikin daudela aipatzen da, Oregi Etxea eta Bea-Murgia Etxea, zeinetan hainbat kultur ekitaldi antolatzen diren: erakusketak, hitzaldiak, lehiaketak, zinema...

Oregi Etxean Eztiaren Museoa eta Musika Eskola daude, eta Bea-Murgia Etxean Emakume Taldearen jarduerak antolatzen dira eta bertan dauden ludoteka, gaztelekua eta liburutegia.

Tokiko Agenda 21 egin zen datan aurreikusita zegoen Murgiako bolalekua zaharberritzea eta 18 urtetik gorako gazteentzako zentro bihurtzea, eta dagoeneko martxan dago.

Zuiako gainerako nukleoetan Kontzeju Etxeak dira kultur jardueretarako erabilgarri dauden ekipamendu nagusiak.

Aurreko atalean jada adierazi denez, elkarteek zenbait jarduera antolatzen dituzte, eta Emakume Taldea soilik emakumeei zuzendutako tailerrak antolatzen ditu: pintura, zeramika, ehungintza eta eskulanak, eta 87 emakume joaten dira.

GOBA Elkarteak, berriz, gehienbat gazteei zuzendutako ekintzak antolatzen ditu, nahiz eta biztanle guztiei irekita dauden, eta ez halabarrez elkarteko kide direnei.

Tras un análisis de estos materiales, complementado con información obtenida de las entrevistas, se pueden sacar las siguientes conclusiones principales:

- No hay pautas establecidas para un uso no sexista del lenguaje, o un Manual a disposición de todo el personal.
- En algunos carteles se observa el empleo de un lenguaje no sexista y en otros no, y en las imágenes utilizadas no se siguen pautas no sexistas.
- En la revista Zubia se observa la utilización de lenguaje no sexista (con alguna excepción) y ocurre lo mismo con las imágenes.
- En la página web se ha observado en algún caso el uso del masculino como genérico.

4.2.- Cultura, Euskera, Deporte y Juventud

En la Agenda Local 21 se menciona la existencia de dos edificios, la Casa Oregi y la Casa Bea-Murgia donde se organizan diversas actividades culturales: exposiciones, charlas, concursos, cine,...

En la Casa Oregi se encuentra el Museo de la Miel y la Escuela de Música, y en la Casa Bea-Murgia se organizan las actividades de Emakume Taldea y está ubicada la ludoteka, el gazteleku y la biblioteca.

A fecha de realización de la Agenda Local 21 estaba previsto realizar la remodelación de la bolera de Murgia y convertirla en un centro para jóvenes mayores de 18 años, ya en funcionamiento.

En el resto de los núcleos de Zuia son las Casas Concejo los principales equipamientos disponibles para actividades culturales.

Como ya se ha recogido en el apartado anterior, las Asociaciones organizan diversas actividades, la Asociación Emakume Taldea organiza talleres de pintura, cerámica, textil y manualidades dirigidos sólo a mujeres, acuden 87.

Por su parte, la Asociación GOBA realiza actividades que suelen ser más dirigidas hacia la juventud aunque abiertas a la población en general, no necesariamente a miembros de la asociación.

Ekintzen artean daude kontzertuak, erakusketak, hitzaldiak... eta elkarrizketan “ikuspegi feministatik” egiten direla komentatzen da.

Ekintza horien bitartez gazteak zein gizartea oro har sentsibilizatu nahi da berdintasun gaitan, genero indarkeriaren aurka..., eta egun jakinetan (azaroak 25, martxoak 8...) zein beste data batzuetan ekintzak egiten dira. Ez dago parte hartzearen daturik.

Zuia udalerrriak hainbat kirol instalazio dauzka:

- Bi kiroldegi, eta horietako batek dauzka sauna, muskulazio gela, bi tenis pista, futbito eta saskibaloia kantxa eta bi igerileku, bat pertsona helduentzat eta bestea haurrentzat.
- Golf zelai pribatua.
- Futbol zelaia.
- Pilotalekua Bitorianon.
- Bolalekua hainbat herritan (Murgian gazteentzako zentro bihurtu da).

Kirol jardueretarako udal programa bat dago, eta hainbat arlotan hiru hilabete behingo ikastaroak antolatzen dira.

Saskibaloian eta futboleak azken urtean izandako parte hartzearen datuak hauek dira:

Entre las actividades, hay conciertos exposiciones, charlas,... en entrevista se comenta que “desde un punto de vista feminista”.

Con estas actividades se pretende sensibilizar, tanto a la juventud como a la sociedad en general en temas de igualdad, contra la violencia de género..., realizando actividades tanto en fechas señaladas (25 de noviembre, 8 de marzo,...), como en el resto del año. No se dispone de datos de participación.

El municipio de Zuia dispone de varias instalaciones deportivas:

- Dos polideportivos, uno de los cuales cuenta con sauna, sala de musculación, dos pistas de tenis, campo de futbito y baloncesto y dos piscinas, una para personas adultas y otra infantil.
- Campo de golf privado.
- Campo de fútbol.
- Frontón en Bitoriano.
- Bolera en varios pueblos (en Murgia se ha reconvertido en centro para la juventud).

Existe un programa municipal de actividades deportivas donde se organizan cursos trimestrales de diversas actividades.

Los datos de participación del curso pasado en baloncesto y fútbol son los siguientes:

Saskibaloia - Baloncesto

